



2008KO EKAINAREN 11KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta zortziko ekainaren 11n, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albisu Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Felix Urkola Iriarte, Amagoia Naldaiz Mingo, Xanet Barreras Jauregi eta Iñaki Saldaña Herrero.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2008ko maiatzaren 14an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2008ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 6 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, LAUROGEITA HAMALAU MILA EHUN ETA BEDERATZI EURO ETA LAU ZENTIMO (94.109,04€)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 385 zbk.dun esped.: Etxeko Laguntza Zerbitzua ematea, astean 6 egun eta egunean 3 ordu. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %8 izango da.
- Etxeko Laguntza Zerbitzua ematea, astean 2 ordu. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %61 izango da.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 700 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuak ordaintzeko hilean 92,5€ ematea uztailetik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 198 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuak ordaintzeko, hilean 42,59€ ematea, uztailetik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %78 da.
- 505 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimenturako hilean 90,63€ ematea, uztailetik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.

...///...

...///...

- 175 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimenturako hilean 46,43€ ematea, uztailetik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 451 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimenturako hilean 82,10€ ematea, uztailetik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 103 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimenturako hilean 48,55€ ematea, uztailetik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %90 da.
- 111 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimenturako hilean 89,03€ ematea, uztailetik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 133 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimenturako hilean 76,29€ ematea, uztailetik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 427 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren alokairua ordaintzeko, hilean 234,50€ ematea, uztailetik abendura. Etxebizitzaren mantenimenturako hilean 69,12€ ematea, uztailetik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 28 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuak ordaintzeko hilean 92,50€ ematea, uztailetik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 490 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuak ordaintzeko hilean 92,50€ ematea, uztailetik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 489 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuak ordaintzeko hilean 83,25€ ematea, uztailetik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %90 da.
- 722 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren alokairua ordaintzeko hilean, 157,70€ko dirulaguntza ematea, uztailetik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %63 da.
- 627 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren alokairua ordaintzeko hilean 290,00€ko dirulaguntza ematea, uztailetik abendura eta etxebizitzaren mantenimentu gastuak ordaintzeko hilean 32,25 € ematea, uztailetik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 135 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuak ordaintzeko hilean 92,50€ ematea, uztailetik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 573 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuak ordaintzeko hilean 54,60€ ematea, uztailetik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 775 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuak ordaintzeko hilean 73,34€ ematea eta alokairurako 73,21€ ematea, uztailetik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 475 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuak ordaintzeko hilean 63,06€ ematea eta alokairurako 245,35€ ematea, uztailetik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.

...///...



...///...

- 789 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren alokairua ordaintzeko hilean 105,00€ ematea eta oinarritzko beharretarako 101,00€ ematea, uztailetik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 787 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuak ordaintzeko hilean 40,43€ ematea eta alokairurako 290,00€ ematea, uztailetik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 705 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuak ordaintzeko hilean 43,95€ ematea eta alokairurako 191,40€ ematea, uztailetik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %66 da.
- 692 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuak ordaintzeko hilean 73,07€ ematea eta alokairurako 199,41€ ematea, uztailetik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %79 da.
- 670 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuak ordaintzeko hilean 62,34€ ematea, uztailetik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 812 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuak ordaintzeko hilean 290,00€ ematea, uztailetik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 83 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuak ordaintzeko hilean 125,00€ ematea, uztailetik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 564 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuak ordaintzeko hilean 74,00€ ematea eta aurretiko zorpetze gastuetarako 232,00€ ematea, uztailetik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %80 da.
- 615 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuak ordaintzeko hilean 92,50€ ematea, uztailetik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 853 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuak ordaintzeko hilean 92,50€ ematea eta alokairurako 15,80€ ematea, uztailetik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 789 zbk.dun esped.: Ikasturtea amaitu denez, ekainetik aurrera garriorako dirulaguntzarik ez ematea.
- 850 zbk.dun esped.: Alokairurako dirulaguntzetatik baja ekainetik aurrera, kontratua bukatu zaiolako.
- 858 zbk.dun esped.: Etxeko mantenimenduko gastuetarako dirulaguntzetatik baja ekainetik aurrera, lanean hasi delako.
- 831 zbk.dun esped.: Oinarritzko premietako gastuetarako dirulaguntzetatik baja ematea ekainetik aurrera, oinarritzko errenta kobratzen hasi delako.

Rwanda taldeari dirulaguntza.-

...///...

...///...

- Rwanda taldeari bostehun eta laurogeita hamazazpi euro eta berrogei zentimo (597,40€) tako dirulaguntza ematea "Elkartasun astea"ren txartelen inprimaketa eta banaketa gastuak ordaintzeko.

IV.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK.-

Gerriko Ikerlan Beka.-

2008ko Gerriko Ikerlan Beka proiektuaren gastuei aurre egiteko, lehenengo zatia, BI MILA ETA BOSTEHUN (2.500 €) euroko dirulaguntza ematea.

Lazkao Txiki Musika Eskola.-

2007-2008 ikasturtean (urritik ekainera) emandako eskolengatik ZAZPI MILA ETA BOSTEHUN (7.500 €) euroko dirulaguntza ematea.

Goierriko Bertso Eskola.-

2007-2008 ikasturtean (urritik ekainera) emandako eskolengatik MILA LAUEHUN ETA BERROGEI (1.440 €) euroko dirulaguntza ematea.

Lazkao Txiki Musika Eskola.-

Maiatzean kultur etxean antolatu zuen xirula kontzertuaren soinu ekipoa ordaintzeko HIRUREHUN ETA LAUROGEITA HAMAZAZPI (377 €) euroko dirulaguntza ematea.

V.- UDALBIDERI DIRULAGUNTZA.-

UDALBIDE Elkarlan Elkarteari lau mila eta bostehun (4.500 €) euroko dirulaguntza emateko eskariaren aurrean.

AURRETIKOAK

- I.- UDALBIDE Elkarlan Elkartearen xede nagusiak dira euskara babestu, garatu eta sustatzeko elkartasun fondoa eratzea eta euskal lurralde guztietako udal eta herritarren arteko harremana bultzatzea; hartara, helburua du ekimenak sustatzea hizkuntza, kultura, kirola, ingurugiro, lurralde antolaketa, ekonomia garapena eta gizarte ongizate esparruetan, baita udalerriek eskumenak esleituak dituzten gainerako gaietan ere.
- II.- Egiaztatu da kreditu egokia eta behar adina dagoela, dirulaguntza emateak berarekin dakartzan betebeharrak ekonomikoei aurre egiteko.
- III.- Udal honetako aurrekontuen betearazpen oinarrietan UDALBIDE Elkarlan Elkartearen alde dirulaguntza emateko aurreikuspena ezarri da, izen eta guzti ezarri ere, eta egiaztatu da elkartearen xedeak bat datozela udal eskumenekin, eta horrek frogatzen du bete egiten dela interes publiko eta sozialarekin bat etortzeko baldintza, huraxe baitute xede bai udalerrri honek bai aipatu elkartearak.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

...///...



...///...

Ikusirik indarra duten arauen artean aplikatu beharrekoak, bereziki UDALBIDE Elkarlan Elkartearen Estatutuak eta haren sarrera Bazkunen Erroldan, eta orobat ikusirik Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorra eta Toki Erakundeen Zerbitzu Arautegia.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, eta bertaratutako bere partaide guztien adostasunarekin, zera

ERABAKITZEN DU

Lehena.- UDALBIDE Elkarlan Elkarteari zenbateko honetako dirulaguntza ematea: lau mila eta bostehun (4.500 €) euro, 2008ko ekitaldirako jarduketa programan aurreikusita dauden jarduerak finantzatzeko, indarra duen antolamendu juridikoarekin eta udal esku-menarekin bat baitatuz jarduera horiek.

Bigarrena.- Ebazpen hau jakinaraztea UDALBIDE Elkarlan Elkarteari.

Hirugarrena.- UDALBIDE Elkarlan Elkarteari onetsitako zenbatekoa ordaintzea, dirulaguntzaren baldintzak arautzeko hitzarmen bat aldez aurretik izenpetuta.

VI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak laurden gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



